

## Udal Berdintasun Sailak enpresekin gestioak egingo ditu emakumeak kontratatatzeko

■ Berdintasun Sailak 2005 urtera bitarteko plana egin du eta bi helburu nagusi ditu: berdintasunaren kontzientzia eta kezka zabaltzea, eta proiektu konkretuak martxan jartzea ■ 17.900 euroko aurrekontua du planak.

BERDINTASUN Sailak martxan du 2003-2005 plana, Plenoak orain dela gutxi onatuta. Irantzu Jauregi Berdintasun teknikariak eta Ainhoa Azurmendi psikologia lizentziatuak moldatu dute plana eta Kronikari adierazi diotenez bi helburu nagusi ditu: batetik, gizon eta emakumearen arteko berdintasunaren kontzientzia eta kezka hori zabaltzea, eta bestetik, berdintasun horren bidean proiektu konkretuak martxan jartzea.

Plan horrek proposatzen duen puntu bat da inguruko enpresekin gestioak egitea emakumeak kontratatatzeko. Zentzu horretan, Berdintasunerako planaren asmoa da emakumeak kontratatatzeko dauden dirulaguntzen berri eman eta enpresekin elkarlana bultzatzea emakumeak praktikan hartu eta gero kontratatatzeko. Enplegua eta prestakuntzari dagokionez, planak beste neurri batzuk ere planteatzen ditu: lan orientazio ikastaroa denbora askoan langabezia dauden emakumeentzat, lan eta enplegu teknikarien formazioa eta abar.

Berdintasunerako planak bederatzi alor hartzen ditu (administrazioa, heziketa, osasuna, kultura, kirola...) eta bakoitzean berdintasuna bultzatzeko inizatibak planteatzen ditu. Irantzu Jauregiren esanetan, lan egiteko sistema ez da Berdintasun Sailak berak ekintza bereziak antolatzea, zenbait ekintza antolatuko baditu ere. Helburua da herriko eta Udaletxe eguneroko martxan berdintasunaren garrantziaz jabetu araztea eta funtzionamendu horretan eragitea.



Irantzu Jauregi Berdintasun teknikariak eta Ainhoa Azurmendi psikologoak moldatu dute plana.

### Kontseilua indartu

Bihar da urtebete Berdintasun Kontseilua eratu zela eta Irantzu Jauregik balorazio

positiboa egin du orain arteko ibilbideaz. Berdintasunerako planean dauden proposamenak Kontseilutik atera

dira eta zentzu horretan garrantzi berezia izan du. Aurrera begira, Kontseilua zabaldu eta indartzea da helburua. □

## BERDINTASUNERAKO UDAL PLANA 2003-2005

### 1) Administrazioa Formazioa

-Genero ikuspegiari buruz ikastaroa.  
-Hizkuntza sexista ez erabiltzeko ikastaroa eta gida liburua.

### 2) Heziketa

-Berdintasunean oinarritutako heziketa programa guraso, ikasle eta irakasleentzat.

### 3) Enplegua eta prestakuntza.

-Langai eta Enplegu Zerbitzuko teknikarien formazioa.  
-Gaur egungo enplegu eta formazio zerbitzuak berrikusi.  
-Egoera aztertu eta elkarlanean aritzeko lan mahaia osatu.

-Lan orientazio ikastaroa denbora askoan langabezia

dauden emakumeentzat.

-Inguruko enpresekin elkarlana: emakumeak kontratatzeko diru-laguntzen berri eman eta emakumeak praktikan hartu eta ondoren kontratatzeke gestioak egin.

### 4) Gizarte Zerbitzuak

-Emakumeen intereserako baliabideak biltzen dituen liburua egin eta banatu.

### 5) Osasuna

-Datuak bildu Anbulatorioan emakumeak familia eta lan profesionalaren karga eraman behar izateagatik izan lezazkeen osasun arazoak aztertzeke.

### 6) Kirola

-Eskola kirolaren diagnostikoa egin kirol eta heziketa

arlotan eragileekin batera.

-Emakumeen arteko kirola sustatzeko egun bateko kirol topaketa antolatu.

### 7) Kultura

-Emakumeak Hernaniko historiari egindako ekarpena bekaren lana argitaratu.  
-Herriko emakume artistek egindako lanen erakusketa.  
-Emakumeek egindako laburmetraia erakustaldia.

### 8) Parte hartze soziopolitikoak

-Berdintasun kontseilua zabaldu eta indartu.  
-Herriko emakume taldeak bultzatu eta asesoratu.

### 9) Hirigintza

-Mintegia hirigintza eta genero ikuspegiari buruz.

## KAXKO ELKARTEA

### Bilera gaur Biterin, Karmen jaia eta obren azkeneko fasearen inaugurazioari buruz

ALDE Zaharreko Kaxko Auzo Elkarteak bilera deitu du ostegun arratsalderako. Kaxkok bi gai nagusi ditu bilera horretan aztertzeke: batetik, Alde Zaharra berritzeko hirugarren fasearen inaugurazioa, eta bestetik Karmen jaia. Kaxko Elkarteak auzotarrei bilerara joateko deia egin die: bihar, 20:00etan, Biterin. □

## OSIÑAGA AUZOA

### Mus txapelketa

OSIÑAGAKO jaietako mus txapelketa larunbatean hasiko da, Arriatsuko Eskolan, 16:00etatik aurrera. Finala, ekainaren 7an izango da. Izen ematea 10 euro da bikoteko.

### Bazkarirako izen ematea

OSIÑAGAKO jaietan auzo bazkaria egiten da Arriatsun. Igande honetan, jaietako antolatzaileak etxez etxe joango dira jaietako programa banatu eta bazkarira dijoazenen izenak hartzeke. □

## MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

### Larunbatean batzarra

MOLOTOFF Irratiak larunbat honetan bukatuko du orain arteko erreflexio prozesua, Oartzungo Arritxulo aterpetxean egingo den batzarrean. Batzarra goizeko 09:00etan hasi eta egun osoa izango da, eta hor erabakiko da Molotoff Irratiak aurrera begira zer bide hartuko duen. Asistentzia konfirmatu edo iradokizunetarako: tel: 943-337013, email: [irantzu@hernani.net](mailto:irantzu@hernani.net).

Bestalde, gaur *Hamaiketoff* programan Irene Arrarasek hitz egingo du Egunkari berriari buruz, 11:30etan. □

www.kronika.net  
**kronika**  
Intemeten helbide berrian

**ZINGI-ZANGA**  
Jatetxea  
Eguneko menuak  
Asteburuan afariak  
Florida 54  
943 33 03 97

**AMEGAR**  
Etxe tresnak  
Altzariak  
Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak  
Sukalde altzariak  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

Arandegia  
Mari Fe  
Nagusia 36  
943 550 489  
Orkolaga 17  
943 552 741  
HERNANI

**GALARRETA JAI-ALAI**  
Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak  
GAUR 16:00ETATIK AURRERA  
ERREMONTE JAIALDIA:  
1. partidua: Larrea - Urrutia / Zalakain - Olazar  
2. partidua: Ezkurra - Auzmendi / Altuna II - Etxabe  
3. partidua: Zeberio II - Iriarte / Altuna I - Lizaso  
4. partidua: Urretabizkaia I - Badiola / Bitoria - Aizpurua II

## Bildu Hernanik gaur egingo du publiko bere balorazioa

BILDU Hernani plataformak asteartean izan zuen bilera hauteskunderi buruzko balorazioa egiteko. Plataformak

iragarri du prentsurrekoak emango duela gaur arratsaldeko 19:30etan, balorazio horren berri emateko. □



Galarza (ezkerrean) eta Valero finalean izango dira.

## Arluziaga-Esteban/Valero-Galarzak jokatu dute Palako finala, bihar

Finala ostiral arratsaldeko 20:30etan jokatu da  
19:30etan, hiru-laugarren postuak jokatu dira.

OSTIRALEAN jokatu da Hernaniko Pala txapelketako finala, kiroldegiko frontoian. Arratsaldeko 20:30etan hasita, Arluziaga eta Estebanek Valero eta Galarzaren kontra neurtuko dituzte indarrak eta abildadeak.

Finalaren aurretik, txapelketako hiru eta laugarren postuak erabakitzekeo partiduak jokatu dira: Asier eta Juan Mari, Oskar eta Ibanen kon-

tra. Partidu hori 19:30etan hasiko da.

**Semifinaletan gauzak estu**  
Aurreko larunbatean jokatu ziren semifinaletako partiduak, eta gauzak estu izan ziren benetan, emaitzek erakutsi bezala. Arluziaga-Estebanek 30-24 irabazi zien Oskar eta Ibani. Valero eta Galarzak, berriz, 30-29 irabazi zieten Asier eta Juan Mariri. □

## HITZ BITAN

### ✓ IGERIKETA

**Hernaniko gaztetxoek saria ikusgarri irabazi dute Zarautzen.** Hernaniko igerilari gaztetxoek sari ugari irabazi berri dute Zarautzen izandako ekitaldi batean. Hona hemen igerilarietako batzuk egindako denborak: 100 tximeletan, Iker Galanek brontzeko domina irabazi zuen, 1'42"17 eginda; 100 bizkar proban, Maitane Danboreneak eta Leire Gonzalezek urrezko domina irabazi zuten, bakoitzak bere proban, eta Maria Fernandezek zoztzigarren postua lortu zuen; 100 estiloan, Axel Allur eta Aitor Lizarazuk brontzeko domina irabazi zuten; proba horretan, Aitor Ortiz 7garren postuan sartu zen eta Ibon Estibariz 10garren; 100 bular proban, Amaia Mujikak hirugarren postua egin zuen 1'49"83 denborarekin, eta Maialen Auzmendik 5garren 1'57"15 denbora eginda; 100 libretan, Kepa Sañudo 5garren izan zen, Vanaixa Garcia 6garren, Sara Rodrigo 7garren, Ane Aizpurua 8garren, Iñaki Berasategi 11garren eta Xabier Errazkin 16garren. □

ZERBITZUAK	
☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
▶Taxiak: 943 550093	▶Egunez: Aizpuru
▶Udaltzaingoa: 943 333288	Latxunbe Berri 11
▶DYA: 943 464622	☎ 943 336077
▶Autobusak: 943 556662	▶Gauzez: Aizpuru
▶Anbulatorioa: 943 006666	Latxunbe Berri 11
▶Jokalari anonimoak: 943 331103	☎ 943 336077

## Ikasleek ingurugiroari buruz egindako lana erakusketan jarri dute Biterin

■ Hondakin, landare eta urari buruzko lanak jarri dituzte 4, 5 eta 6garren mailako 412 ikaslek ■ Arratsaldeko 17:00etatik aurrera dago zabalik.

IKASTETXE guztietako umeek egindako lanarekin erakusketak jarri dute Biterin, Udalak eta Artelatzen elkarlanean darabakiten *Hernanin Ingurumena* programaren barruan.

Ingurugiro programa mailaka banatua dago eta 4, 5 eta 6garren mailako 412 ikaslek hartu dute parte lan horretan. Laugarren mailakoek hondakinaren gaian sakondu dute eta informazioa jasotzeaz gain, bisitak ere egin dituzte Urrietako banaketa plantara eta San Markosera. Umeen zaborrekin egindako irudiak, muinekoak eta abar egin dituzte.

Bosgarren mailako ikasleek landareen gaia landu dute eta Arizmendiko landare mintegia



Ume bat Biterin ikasleen lanekin jarritako erakusketari begira.

bisitatu dute. Seigarren mailako ikasleek, berriz, ura izan dute gai nagusia eta Añarbeko urtegia bisitatu dute.

Erakusketan umeek egindako lanez gain, badaude garapen eramangarriekin lotutako argazkiak eta abar ere. □

## EUSKALDUNON EGUNKARIA

### Juanmari Larrartek egunkari berria aurkeztuko du gaur

EGUNAKARIAko ardura-dunak herriz herri aurkezten ari dira ekainean kalean izango den egunkari berria. Gaur, osteguna, Hernanin egingo da aurkezpen hori. Biterin, 20:00etan, *Berrian Berri*

kanpaina azaltzeko bideo emanaldia izango da, eta ondorenean Juanmari Larrartek emango ditu proiektu berriaren detaileak, akzio bilketari buruzko informazioa eta abar. □

## MUSIKA ESKOLA

### Matrikulatzeko azken eguna

HERNANI Musika Eskolan matrikulatzeko epea zabalik dago eta bihar, ostirala, izango da izena emateko azkeneko eguna. Informazio gehiagorako Musika Eskolara bertara jo edo Tel:943 557409. □

## ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK



### Hernaniko Traineruak arraunlari berriak eraman zuten

ESKOLA kirolaren barruan, benjaminak arraunean ibili ziren joan den larunbatean Eloburiko pare horretan. Hasieran arraunari nola heldu ere nahiko lan izan zuten, baina, azkeneko hartu zioten tiñua eta txanpa gogorren batzuk ere jo zituzten. Bestalde, alebin guztiek futbol torneooa izan zuten.

Datorren asteburuan bukatuko da Eskola Kiroleko denboraldia. Alebinek bi bitako bolei torneo azkarra dute 09:15etan kiroldegian. Oraingoz 40 bikotek eman dute izena. Benjaminek, berriz, herri kirolak dituzte, Latsunbeko frontoi txikian edo euria bada kiroldegian, larunbatean 09:30etan. Guztira 120 bat benjamin izango dira. Infantiletan Langilek Herri Ametsaren kontra jokatu du futbol sarran, 11:45etan kiroldegian. □

Batis Larburu gazteei erakusten. "Benga gaztiak bat, bi, hiru..."